

Adixkide agurgarri hori:

Gutun honen bitartez zurekin harremanetan jartzen nahiz San Martzial Alardeko Buruzagien Batzordeak Alardean eta bere inguruan egiten diren ekitaldietan Armen Erabileraren inguruan adostutako erabakiaren berri emateko, hala nola zure laguntza eskatzeko

Alardean armen erabilera inork nahi ez dituen arrisku egoerak eragin ditzake, nohiz behinka ondorio larriekin. Gure Alardean segurtasuna ezinbestekoa da.

Horregatik eta ahal den neurrian arrisku egoera bat sortu ez dadin bai ikusleentzat hala nola Alardeko partehartzaileentzat, San Martzial Alardeko Buruzagien Batzordeak armen erabilerarako segurtasun arau batzuk zein funtzionamendu protokolo bat onetsi du, Alardean arma batekin soldadu gisa parte hartzen duen ororentzat bete beharrekoak.

Seguratsun arau hauek hurrengo helburu hauek lortzera zuzenduta daude:

- Alardean eta bere inguruan egiten diren ekitaldietan armak erabiltzeak sor ditzakeen arrisku egoerak txikiagotzea.
- Alardeko eta bere inguruan egiten diren ekitaldietako deskargetan bermatzea ez dela arriskurik sortuko, ez ikusleentzat, ez Alardean parte hartzen dutenentzat.
- Deskargak egiteko adostutako eta baimendutako tokietatik kanpo tiroak erabat baztertzea, eta Alardean eta bere inguruan egiten diren ekitaldietan ematen direnean eragileen atzetik ibili eta espedientatzea.
- Armen erabilerari buruzko segurtasun arauak bete eta segurtasun arloan eskumena duten agintariekin elkarlanean aritzea, armen erabilera egokia bermatzeko eta Alardean eta bere inguruan egiten diren ekitaldietan sor daitezkeen arrisku-egoerak saihestu edota txikiagotzea.
- Armen erabilerarako segurtasun arau hauek zein bere funtzionamendu protokoloa Alardeko Ordenantzan, hala nola konpainiako barne erregimenetan txetartzea, eta, era berean, soldadu armatu guztiak sentiberatzea erabaki hauek betetzeak duen garrantziaz.

Ahal bezain laster konpainietako kide guztiei honako datuok ematea eskatzen diegu, bete beharrekoak baitira Alardean arma batekin soldadu gisa parte hartzeko:

Helburu hauek lortzeko EZIN BESTEKOA DA ZURE LAGUNTZA. Lortzea guztion gain dago. Horregatik formulario hau betetzea eskatzen dizugu eta zure konpainiara bidaltzea lehen bait lehen

- Zure datuak honako helbide elektronikora bidaliz: **ciasanmiguel@gmail.com**
- Postaz honako helbidera bidaliz: ...

Adeitasunez,

KAPITAINA

Compañía

Nombre y apellidos

DNI

Tipo de Arma

☐

Remington

☐

12 mm

☐

Aire comprimido

☐

Réplica

Operativa

☐

SI

☐

NO

Nº Guía

Dirección

Población

C.P.

País

Tfno